

IRUDIAK HARRAPATUTA

Hasieran zaletasuna zuena, urteetako etengabeko ikaste prozesua medio, ofizio bilakatu zaio 20

Udaberri honetan, aukeratu Miele bat prezio benetan harrigarrian



Garbigailua W 3164 LW Edition 111

- Altzairu herdoilgaitzeko Softtronic tanbor eskusiboa. 1etik 7 kg-ra.
- Zentrifugatua: 400etik 1.400 bira minutuko.
- Bukatzeko falta den denbora adierazlea.
- Etiketa energetikoaren arabera sailkapena: A+B

Berezko prezioa (BEZ eta RAEE bame) **1.122,93 €**



Garbigailua W 3370 LW

- Altzairu herdoilgaitzeko Softtronic tanbor eskusiboa. 1etik 7 kg-ra.
- Zentrifugatua: 400tik 1.400 bira minutuko.
- 24 ordu arteko aurretiko aukeraketa.
- Bakarrik garbitzen den detergente tokia.
- Etiketa energetikoaren arabera sailkapena: A++B

Berezko prezioa (BEZ eta RAEE bame) **1.229,58 €**



Arropa-lehorgailua T 8860 WP LW bero bomba

- Bero bomba eta kondentsazio bidezko lehorgailu elektrikoa.
- Altzairu herdoilgaitzeko Softtronic tanbor eskusiboa. 1etik 8 kg-ra.
- Energia aurrezteko Perfect Dry lehorte sistema.
- Etiketa energetikoaren arabera sailkapena: A (-46%).

Berezko prezioa (BEZ eta RAEE bame) **1.229,58 €**



Gomendatutako prezioa*

799 €



Gomendatutako prezioa*

999 €



Gomendatutako prezioa*

999 €



Ontzi-garbigailua G 4210 SC Brws Special

- Mahai-tresnentsat bandeja.
- Edukiera: 14 zerbitzu normalizatu.
- 5 garbiketa programa.
- Zarata gutxikoa, 51 dD(A) re1pW bakarrik (DIN EN 60704-3).
- Ur-kontsumo baxukoa, 13 litro bakarrik.
- 24 orduko aurre aukeraketa.
- Bukatzeko falta den denbora adierazlea.
- ComfortClose atea ixteko sistema berria.
- Etiketa energetikoaren arabera sailkapena: A+

Berezko prezioa (BEZ eta RAEE bame) **799,99 €**



Gomendatutako prezioa*

599 €



Ontzi-garbigailua G 4220 SC ED/Clst Front

- Mahai-tresnentsat bandeja.
- Edukiera: 14 zerbitzu normalizatu.
- 5 garbiketa programa.
- Zarata gutxikoa, 51 dD(A) re1pW bakarrik (DIN EN 60704-3).
- Ur-kontsumo baxukoa, 13 litro bakarrik.
- Altzairu herdoilgaitzeko diseinudun tapa, ertz zinkatuak.
- 24 orduko aurre aukeraketa. Bukatzeko falta den denbora adierazlea.
- ComfortClose atea ixteko sistema berria.
- Etiketa energetikoaren arabera sailkapena: A+

Berezko prezioa (BEZ eta RAEE bame) **1.127,03 €**



Gomendatutako prezioa*

799 €

Azkoliti-Azpeitiko Banatzaile Ofiziala:

**MILAR
LARRAMENDI**

Julio Urkijo, 16
20720 Azkolitia-Gipuzkoa
Tel.: 943 851 897

Miele

IMMER BESSER

ASIER ETXANIZ

Banderilleroa

“Beti ibili izan gara zezen artean”

Banderillero izateko urratsak ematen ari da Etxaniz. Udan debutatuko du seguruenik, baina “presarik gabe” hartu behar dela dio behin eta berriz. 📧📷 Xabier Otamendi

Iazko urte amaieran hasi zen bere afizioari serioago eusten Asier Etxaniz. Anaia burzikaria izan zen urte batzuetan, utzi zuen arte. Etxaniz bera, askotan ibili da inguruko zezen eta behiekin, baina orain pauso bat gehiago eman du. Iazko urte amaieran, Radara (Nafarroa) joaten hasi zen banderillero izateko ikastera.

Norekin zabilta ikasten?

Manolo Rodriguezen etxean nabil. Toreatzailea izana da, eta han izaten dira, Francisco Marco, Iruñeako toreatzailea eta berekin ibiltzen diren banderilleroak. Hantxe entrenatzen dute. Egia esan, dakien jendearekin ibiltzen naiz, beraz, entrenatzerakoan alde handia egiten du horrek.

Non aritzen zarete?

Radan, Nafarroan. Herri txiki bat da, Caparroso ondoan. Haraino joan behar, hori dauka txarra. Asteburuetan joaten naiz. Ahal badut larunbat, igande eta jaiegunetan joaten naiz. Baina, bi orduko bidaia egin behar da hara iristeko. Gainera, Iruñeatik beste mutil bat hartzen dut. 15 urte ditu eta nobilleroa izan nahi du. Ea datorren urtean debutatzen duen, 16 urte behar baitira horretarako. Gero, neuk etxean ere egiten ditut ariketak. Fisikoa oso garrantzitsua denez, korrika hemen egiten dut. Fisikoa aurreratuta joaten naiz Radara. Teknika ikasteko aprobetxatzen dut han. Ze haraino joan eta korrika egin beharko banu... hori hemen egin dezaket.

||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1987ko apirilak 29.

||| **Bizi tokia.** Azpeitia.

||| **Lanbidea.** Errepideetako mantenuan egiten du lana.

Zer egiten duzue Radan?

Beraien entrenamendu normal bat. Agian lasterka pixka bat egiten dugu, baina berotzeko baino ez. Gero, zezenarena egiten has-

ten gara. Batek besteari zezenarena egiten dio, txandaka egiten dugu. Nik beste bati egiten diot, besteak niri egiten dit. Neu banderillekin eta kapotearekin aritzen naiz. Niretzat zezenarena karro batekin egiten dute. Banderillak jartzen dizkiot hasteko, eta gero kapotearekin aritzen naiz. Beti



Etxaniz, eskubitik hasita hirugarrena, eta bere alboan Marco toreatzailea.



egoten da Francisco Marco edo besteren bat begira, eta hark esaten digu bat horrela dela edo bestea horrela dela. Orduan, ondo etortzen da alboan zu baino gehiago dakiena... beno, askoz gehiago dakiena izatea. Izan ere, etxean egin dezakezu, baina ez dakizu ondo ari zaren ala ez. Ari zara, baina. Zaila da; beraz, baten bat egotea ondo etortzen da. Ondo ibiltzen gara, ambientean, dakien jendearekin behintzat.

Denboraldi honetan hasteko asmotan?

Bai. Uztailaren amaieran San Adrianen feria bat dago. Zaldirik gabekoak dira, Zestoakoa bezala, baina bi egunean izan beharre-

an, bost edo sei egunez luzatzen dira. Zekorketa bakoitzeko bi toreatzaile eta lau zezen. Saria ere izaten da, gainera. Egun asko direnez, han sartzeko esperantza bat badaukat; izan ere, egun asko direnez, baten bat falta baldin bada edo...

Anaiak etxean laguntzen al dizu?

Zezer. Hura orain umearekin nahiko lanpetuta dabil. Gainera, Zumarragan bizi da. Baina etortzen denean laguntzen dit. Berari ere gustatu egiten zaio, eta aprobetxatu egiten du [kar kar kar]. Bai, laguntzen dit, nik lehen berari laguntzen nion bezala.

Afizioa nondik datorkizue?

Betidanik izan dugu. Familiatik. Aitona, osaba, bestea... Gero anaia burtzikari hasi zen nik 10 bat urte neuzkala. Txikitatik beti hortxe izan dugu. Gero lagatzen duzu eta aurrenengo urtean esaten duzu: "hori pakie". Izan ere mundu oso zaila da, eta alde guztietatik hartzen dituzu kolpeak. Baina bi hiru urte pasatakoan, berriro "ondo pasatze ginean" esaten hasten zara. Gurekin etortzen zirenek ere bai. Horrela hasten zara. Gainera, guk hemen segitzen genuen Berrosuetako zezenak toreatzen ez bada bestean, edo sokamuturrean, afizioz. Horrela, segi, segi eta segi... Badakizu zer izaten den, saiatu beharra daukazu. Behin bizitzen zara. Etxean ez dago ezer, eta saiatu egin behar da. Ezer ez egiteko, hau berriro ere hemen egongo da. Ez bazaizu gustatzen edo ez baldin baduzu balio, utzi eta ez da ezer pasatzen.

Noiz pentsatu zenuen banderillero izan behar zenuela?

Lehen esan dudan bezala, beti ibili izan gara zezen artean. Anaiarekin ibiltzen ziren Iruñea inguruko lagunekin harremana ere mantendu izan dut; asko ibili izan dira gurekin. Bazekiten aritzen nintzela toreatzen eta abar. Nahi nuen nonbaitetik hasi, baina zaila da gauden inguruan hastea. Han behintzat saiatzeko aukera ikusi nuen, eta pentsatu nuen: "aurre-ra". Iazko udan beraiekin hitz egin, eta ez zegoela inongo arazorik esan zidaten. Laguntzeko prest

agertu dira haiek beti, beraien aldetik arazorik ez da egon. Dirurik ordaindu beharrik ere ez dut izan. Beraien etxean dena irekita daukate, eta laguntzeko prest daude. **Zezenketarik inoiz ikusi ez duen bati, nola azalduko zenioke zein den banderilleroaren lana?**

Hiru toreatzaile izaten dira saio batean. Toretzaile bakoitzak beste hiru lagun eramaten ditu berari laguntzeko. Beraz, nik haren esanetara egon behar dut. Esaten duena egiteko prest egon behar dut. Nire lana, bere pendiente egotea da, zezenketen aurretik eta momentuan bertan. Zezenketan, bera zaindu eta berak esandakoa egin behar dut arratsalde guztian. Gero banderillak ipintzeko ordua iristen da. Ahal den ondoena egiten saiatu eta gero berriro bere pendiente egon behar da.

Azpeitia garai batean toreatzaileen herria zela esaten zen, baina dena aldatuta dago. Ingurukoek nola hartu dute zure erabakia?

Bai, dena aldatuta dago. Ama harrituta. Anaiarena amaitu zenean honekin ahaztu ginela pentsatu zuen eta [kar kar kar]. Baina ezberdina da. Nik 26 urte dauzkat, neu joaten naiz, neu etorri. Nire era ibiltzen naiz. Lana ere egiten dudanez, ez da lehen bezala... Lagunei dagokionean, badakiteenez betidanik zezenak gustatzen zaizkidala... Ezagutzen naute eta besterik gabe. Ulertu ere asko ez dute egiten; beraz, ez dakite lehen ibiltzen nintzen ez naizen ibiltzen. Baina ondo.

Azpeitian noizko?

Azpeitia oraindik luze ikusten dut, baina espero dut iristea. Azpeitira baino lehenago Zestoara iritsiko naiz agian, baina ikusiko dugu. Hori bai, presarik gabe. Lehenengo prestatu egin behar da. Zeren hona gaizki egitera etortzeko... Ezagutu egiten zaituzte eta badakizu zer izaten den. Behin hona etortzeko prestatuta etorri behar da. Ez dago presarik.*

“Ahal badut Larunbat eta igandetan joaten naiz”

“Hona etortzeko prestatuta etorri behar da. Ez dago presarik”

Ez ote dira ba?

Dirudienez, PP, PSOE eta UPyD alderdi "demokratek", PNVren absentsio kolaborazionistarekin eta Urkulluren adierazpenekin, legebiltzarrean aurkeztu duten adierazpen baten harira, aurrerantzean ez dago "preso politikorik", ez eta esamolde horrekin loturiko adierazpenik egiterik ere.

Lehenik eta behin: preso politikoak, gatazka politiko baten ondorio zuzena dira (tamalez, eurentzat, senideentzat, eta Euskal Herriarentzat), eta gatazka politikoa botere eta burujabetzaren gatazka da. Azal dezagun.

Ulertzekoa da ikuspuntu nazionalista espainiar (edo frantziar) batetik preso politikoei izaera hori ukatzea, baita gatazka politikoari inongo erreferentziarik egiten dion ideia, mugimendu edo dena delakoaren ukapena ere. Batasun nazional espainiarrak (eta gure herriko unionistek) ez du ulertzen estatuko eremu barruan burujabe izan nahi duen inor egon daitekeenik, aske, euren estatu egituretatik at, bere ohitura, hizkuntza, kultura, ekonomia eta aurategiez zuzendua eta eremu internazionalen euren parez-; pare lehiatzeko gai izango dena. Espainiar izateaz harro daude, euren herri izaera (nahiz estrukturaliki estatu espainiarrak dituen akatsak izan) bermatua baitago. Beraz, ez da espainiarra ez den inongo Subjektu politikorik onartzen, ezta onartuko eta ulertuko ere, azken batean Estatu nazional modernoa ideia horren inguruan antolatzen baita; herri eta lurraldearen defentsa, boterea eta zuzenbideaz baliatuz.

Nahiz eta gogorra izan, espainiar eta frantziar agintariak, logika osoz jokatzan dute ukapen eta zapalkuntza politikekin, euren etxean eurak baitira nagusi, nahiz eta logika hori, etxe horretan alokairuan dagoenarentzat (gure kasuan), noski, inposatzailea, bihozkailea... izan. Hots, sakoneko gatazka: burujabetza edo menpekotasuna.

Burujabetzaren kontzeptua eta gatazkarena, zeharo sinplifikatuz, familia batekin aldera dezakegu: gurasoak estatu zapaltzaileak dira



|||||||hodei mendinueta|||

|||Argi dago, beraz, gatazkaren gakoa eta konponbidea burujabetzan dagoela

(barkatu) seme-alabei arauak jartzen dizkietenak, euren bidea egiten hasteko etxetik joan nahi edota bikotekide bat bilatzea onartzen ez dutenak. Eutsi ahal izango diete menpekotasunean seme-alabei pribilegioekin, zigorrarekin edo mehatxuekin, baina beharrak etxetik irtetera eramango ditu, nahitaez.

Nahi dutena esango dute legebiltzarrean, eta behar bada zigortuko naute hau esateagatik, preso politikoak dira gure presoak, eta gatazka politikoa ukaezina da: alde batean, bi herri aske eta burujabe daude, burujabetza hori gauzatzeko estatu eta arautegi propio bat dutenak, eta burujabetza horren aldeko defentsan biolentziaren monopolioaren jabe direnak (ejerzituak, poliziak, ertzaintza). Beste aldean, gu, herri zapaldu eta burujabe izandakoa, izandakoa berreskuratu nahi duena, burujabetza eskuratzeko eskura dituen baliabide guztiak erabiltzeko zilegitasuna duena, burujabetzaren aitortzaren oinarria bizi den menpekotasunetik askatzea baita.

Argi dago, beraz, gatazkaren gakoa eta konponbidea burujabetzan dagoela. Inperialistek esango dute euren lurrean burujabe garela, espainiar edo frantziar gisara, baina inondik ere ez digute onartuko guk nahi duguna izateko aukera. Mendeak daramatzagu horrela, hau ez da gaurkoa.✘



BIRZIKLAGARRIA NAIZ.

Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.



Kotxearen kantua

Azpeitia goizeko bederatzia bost gutxiago, perretxiko-betharram eta errotonda, kotxe bat, bi, hiru, lau, bost... Aurrean aita edo ama, atzean ume bat, ume ahulkitxo, sei, zazpi, banan-bana, ilera luzea, oso luzea. Mixikordi aurrean espaloian kotxe bat, bi, hiru, lau, bost, ama-umea, aita-umea, presaka, korrika... Lerro luzea, oso luzea, emergentzia argiak... Perretxikotako jolaslekua, parkina, Mixikordiko espaloi zabala, parkina.

Kanta dezagun haur eta heldu, denok alai-alai!

Nire kotxea jostailua da, nire arropa da, botak jantzi, prakak jantzi, kotxea jantzi, poltxikoan sartuko dut, jox! Etzait kabitzen.

Nire kotxea txakurra da, bi begi eta muturra ditu, giltzako botoia sakatu eta kaso egiten dit, goizean presaka nabilenean, bederatzia zazpi gutxiagotan.

Nire kotxearekin noa kalera, paseoan espaloi ertzetik, guazen txiki! Ipiniko diot lepoko nire kotxeari? Jox, etzaio kabitzen.

Nire kotxea gose da, jaten ere badaki, emango diogu edaten kotxeari? Ahoa du, txikia, sabela ere bai eta edan eta edan dabil beti, baina gutxi-gutxi gastatzen du, baina beti da egarri. Kas bat erosiko diogu?

Nire kotxea kirolari ona da, nirekin doa beti, korrika, ttipi-ttapa ere bai, sprinlean doa orain, axkar-axkar. Prakamotxak erosiko dizkiogu kotxeari?

Nire kotxea txintxo da, kaso egiten dit. Espaloi erdian, ate aurrean, beti kaso egiten dit, esanekoa da, opari bat egingo diot berari?

Nire kotxea besteen laguna da, familia handia gara, kaleko familia handia, kotxe bat, kotxe bi, kotxe hiru, denok lerroan, lerro luzea oso luzea, familia luze-luzea.

Nire kotxearen urtebetetzea da, merienda bat egingo dugu txorixo panplona eta binboekin, sofan eseriko da kotxea, kotxe-alai kotxe-txintxo.

Kotxe bat, kotxe bi, txapa bat eta txapa bi,



iosu salegi

Azpeitia desberdina zelako, hau ez delako nik ezagutu nuena, umea han dagoelako, ni naiz, baina han nago...

metalizatu bat eta metalizatu bi, espaloi bat eta espaloi bi, munixipal bat eta munixipal bi, zemento bat eta zemento bi, parkin bat eta parkin bi, segurtasun leiho bat segurtasun leiho bi, aire egokitu bat aire egokitu bi, segurtasun gerriko bat segurtasun gerriko bi.

Kantua amaitu da

Zerbait koherentea esan orduko, damutu beharrik gabe, gauzak horrela direlako eta kitto, Azpeitia desberdina zelako, hau ez delako nik ezagutu nuena, umea han dagoelako, ni naiz, baina han nago... Gauzak horrela direla eta kitto, denok gurpil berean biraka gabiltzala, beti denok berdin-berdinak garelako eta kitto, zu eta ni hura eta gu, eta kotxea denok berdin! Irentsi dezaket baina kosta egiten da batzutan, eztarrian behera gauz batzuk katiatuta, egoera batzuk... Txin pun.*



Beti dago lehen aldi bat edo zertarako...

Honetarako, hartarako... badakizu.
Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai;
erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko,
adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online
estreinatzeko unea.
Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

10€

oparituko dizkizugu online egindako
lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik
gorako eskaerentarako balio du.

eroski.es


zurekin



EKAINAK 14, ostirala

22:30: **Bertso saioa:**

- Maialen Lujanbio
- Jokin Uranga
- Amets Arzallus
- Haritz Etxeberria

EKAINAK 15, larunbata

10:00: **Sega apustua**

11:30 **Batzarra** Sindikatu Zaharrean

Gaia:

- Orain arte egindakoa
- Gaur egungo egoera
- Etorkizuneko erronkak

13:00 **Hamaiketakoa** Orkatzten
trikitariekin

14:30 **Bazkaria** San Agustinen

- Langileak 22 €
- Langabetu / ikasleak 15 €

Bazkalondoren:

"Amamantzat guapuk"

22:00 **Kontzertuak:**

- "The fridays crew"
- "Egurra ta kitto"
- "Belar txarrak"

EKAINAK 16, igandea

12:00: **Porrotzekin kalejira**
Orkatzetik abiatuta


HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Oharrak, euskara hutsean, noski!

Poza ematen du kalean zoazela erakuslehoetako kartelak euskara hutsean ikusteak. Bejondeiela euskarari bultzada ematen dieten dendari guztiei! **Uztarrria**

**BEHERA.** Esperientziaduna?

Martxa honetan euskararen normalizazioa ez dugu berehalakoan lortuko. Okerrena da, neska euskalduna dela azpimarratzen duela eskaintzaren hasieran. **Uztarrria***



Jose Maria Guibert.

ESANA DAGO

III "Unibertsitateok gizarteari ekarpenik egiten al diogun pentsatu behar dugu"

III "Krisi garaian ezagutzaren bidez ilusioa sortzea dagokigu"

JOSE MARIA GUIBERT
Deustuko Unibertsitateko errektorea

III "Burutik jota nagoela esaten didate etxean"
ASIER CUEVAS
atleta

III "Aspaldiko zauriak ez dira orain ireki; beti egon dira zabalik"

AMAGOIA GURRUTXAGA
'Zarauzko postalak, 36ko gerra'-ren egilea



kutxa



Aiertza
Autoak

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net



Mugen apaltasunetik

Matxinbentako markesaren aginduak sortarazten didan hileroko burukomina. Orri zuriaren gaitza. Uztarriako irakurle jatorrei ze demontre axola zaie, asteburu osoan irratiz latan aritzen den herritar apal honen iritzia. Neure ogibidea ez dut zutabe honetara luzatu nahi, eta hari mutur guztiak lotu gabe ditudan gaietaz, ez dut epelkerietan aritu nahi. Ez diot Kepa lagunari sermoien frankizia kendu nahi. Zer egin behar dek Txetxu! Betikoa, jardun eta jardun, bazterrak aspertu arte.

Krisia, langabezia, Corrugados, atez atekoa, jaunartzeak, txanpionsa... zer aztertu eta

zertaz aritu badago. Kontu guzti horietaz nik ere badut neure iritzia, axalekoa, eta horregatik, baliogarria izan litekeen ezer plazaratzeko gai ez naizenez, isilik egonda hobe. Dakienak dakiena egitera mugatuko bagina zeru lurtiarran gertuago genuke.

Koherentzi pittin bat banu hemendik aurrerakoa zuri-zuri utzi beharko nuke. Nire marka laguna haserretzerik nahi ez dudanez, ordea, puzzlea osatu egingo dut.

Udaberria, Xanjuandeiko festak, Xoxoteko eguna... frenorik gabe udarekin tupust egi-tear gaude. Gaztaroa, ikasle garaiekin lotzen



txetxu urbieta

dudan neurrian, gazte izateak inolako enbidiarik ematen ez didan urte sasoi bakarrean gaude. Azterketa azterketaren atzetik. Txuleta txuleta atzetik. Lana zintzo eta fin egin arren, hori da hori infernua. Ikasle itxurosoa izan banintz ere, oroitzapen onik ez. Nerbioak, estresa, lorik ez, egun osoa liburu artean... kanpoan natura bere onenean dagoen bitartean. Eutsi gazte, sanjuanak ere iritsiko ditun/k... Eta hortik aurrera, fuego, erre bazterrak. Bizitza bakar bat eman digutelako, behin bakarrik biziko garelako. Bizi, ez iraun... eta bizitzen utzi.*

IKUSTEKO!



▲KOMUNEKO PAPERA, LUXUZKO ARTIKULUA?

Ekonomiaren krisia gogor ari da astintzen bazterrak. Norbere eginbeharrak egin, eta ipurdia garbitu ahal izateko papera luxuzko artikulu bilakatu ote da? Itxura denez, Loiolako komun publikoetatik komuneko papera etxera eramaten hasi da jendea. Handik edo hemendik aurreztu eta gastuak murriztu behar?! 🗑️🗑️ **Uztarria***

MAIATZEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN.....



Gillermo Aizpuru omendu dute

OIARTZUN. Memoria historikoa berreskuratzeko duen garrantzia azpimarratzen da. Azeptiko Guillermo Aizpuru bezala, milaka lagun gatibu izan zituen erregimen frankistak, eta langile moduan erabili zituen. Babilonia izeneko kanpamenduan eman zituen Gillermok bere bizitzako 18 urte, bere borondatearen kontra, eta berandu xarmar bada ere, langile horien guztien izenean, jaso zuen merezitako aitortza Oiartzunen.



izaskun egiguren



Lan hitzarmena sinatuta

SAN MARTIN EGOITZA. Sektore ezberdinetako lan hitzarmenak sinatzea lehentasunezko gaia da, une honetan, lan baldintza duinak mantentzeko aukera kinka larrian baitago. Poztekoa da San Martin Egoitzan lan hitzarmena sinatu izana. Sektore feminizatuak baitira krisi saioetan kolpatuenak.



Kontserbazio Bereziko Eremua

IZARRAITZ. Gure inguruneak merezi duelako! Honelako pauso txikiak gure ingurune naturala babesteko aukera aproposa ematen digute. Eta horrela, herritarrok badugu zertaz kezkatu, eta era berean, zertaz

gozatu ere. Erabaki honekin, Izarraitzko eremuaren premia ekologikoak erantzuteko neurriak ezarriko dira, guztioi eragingo digutenak, baina batez ere, guztiontzat mesedegarriak izango direnak.✘

INKESTA

Ezaqutu al duzu inoiz horrelako udaberri bustirik?

 Ainitze Agirrezabala

INA UKUDUN

jubilatua



“Deprimitezkoa da, eguna joan eguna etorri dugun eguraldia.

Ez naiz akordatzen halako udaberririk ezagutu dudarik. Ekainean sartzea eta neguko arroparekin gabilta. Terrazan lasai, kafe bat hartzen ezin gara eseri. Negargurea ematen du”.

ARANTZA AGIRRE

erretiratua



“79 urte ditut eta halakorik ez dut ezagutu. Senarrak eta biok Zelai

Luzen paseatzeko ohitura dugu, baina eguraldi honekin telebista ikusten pasatzen dugu denbora, ipurdiko mina egin arte”.

M. JESUS MADRAZO

jubilatua



“Hortarainokorik ez dut ezagutu. Egun polit bat egiteko zortzi

txarrak egiten ditu. Gainera, hotz dago. Berogailua piztu behar izaten dut, eta Lasako bidegorrian paseazterik ez dut”.

INAZIO GORROTXATEGI

erretiratua



“Hainbeste egun jarraian euria egin duen udaberririk ez dut ezagutu.

Baserritarra naiz, eta belarbolak oraindik egin gabe ditugu. Oro har, sanisidroetarako eginda izaten ditugu”.*

Nora goaz

Sekulakoa da teknologia berriek gure egunerokotasuna urte gutxian nola aldatu diguten. Duela ez hainbeste, goizeko ordu txikiak arte egon gintezkeen edozein gai absurdotaz eztabaidatzen. Esate baterako, tigreek oreinak jaten ote dituzten gaitzat hartuta. Batzuek, sutsuki, ezetz esango zuten, tigreek tropikoan eta oreinak ipar hemisferioan daudela, inoiz ez batera. Besteek, oreina eta tigreen arteko tesi bat egin duenaren ziurtasunaz, baietz, Asian bi espeziak zonalde berdinetan bizi direla. Kuadrilako despitatuak, agian, duela urte batzuk La2eko dokumental batean tigre bat oreinaren buruan kosk egiten ikusi zuela esango luke, azken honi gutxik sinetsi arren.

Lehen, gazte lokal batean porro baten kea bezainbeste errepikatzen ziren eszenak, ordea, orain nekez aurki ditzakegu. Eztabaida piztu orduko norbaitek *google*-en begiratuko du, ondoren *youtube*-ko bideoa lokaleko guztiei erakutsi, eta azkenik kua-



Yuri Agirre


drilako despitatuak *facebook*-ean eskegiko du tigreek oreinari buruan kosk egiten dion irudia, oraingoan arrazoi duela lagun birtual guztiek jakin dezaten. Interneten dena, edozer, aurki baitezakegu.

“Asko jakitea baino, hobe da asko dakien lagunaren telefonoa izatea”, esan ohi genuen lehen. Internet-en gauza egokiak aurkitzen jakitea asko jakitea baino garrantzitsuagoa dela esaten dute, berriz, gaur egun.

Belaunaldiz belaunaldi ahoz transmititutako bertso zaharrak klik batean aurki ditzaket orain sarean. Eta txalaparta jo, orde, mugikorren pantaila ikutz atera ditzaket soinu berdinak.

Eguna pantaila bati kateatua igarotzeak, edo sarean dena aurkitu ahal izateak, beldur pixka bat ematen dit. Nora goaz?

Baina, bitartean, hitzok pantaila batean idazten ari naizela ohartzen naiz.*

Gal detzen hasita, zergatik esaten dioqu sanagustinpeari uda letxe azpia, eta sanagustini sanagustinpe?  Uztarria

Ez izan beldur

Esaten ere ez da erraza, baina esatea da errazena bizi dugun egoeran, hainbat herrikide kezkaz eta larriz uzkuririk daudenean, gaudenean. Halere, bihotzez esateko eta entzuteko premia dut: “Azpeitiar adiskidea, ez izan beldur!”.

Ez izan beldur egoeraren gordinari aurrez aurre begiratzeko. Ezta argi eta zoli begiratzeko ere zerk ekarri gaituen egoera honetara. Inor ez gara errugabe, baina guztiok ez gara berdin errudun. Eta gutxien irabazi eta gehien galduko dutenak dira errugabeenak. Urrutiko nahiz bertako espekulatuak, iruzurgile eta gutziatsua dira errudunenak. Bego argi. Kontu nagusia ez da, ordea, erruak banatzea, ezta zigorrak ezartzea ere. Aurrerako bidea egitea da kontua. Sinesten badugu, posible izan liteke. Sinesten ez badugu, ez.

Ez izan beldur itxaropenari eta utopiari. Utopiak ez dira inoiz lortzeko, norantz jo jakiteko baino. Utopiak erakusten digu bidea; itxaropenak eragiten aurrera.



Joxe Arregi

Ez izan beldur zeure eskasiari, ezinari. Ezta zeure beldurrari ere. Ez duzu guztien salbatzaile heroikoa izan beharrik. Konponbide osoa ez dago zure esku, baina zure esku dago gari-aletxo bat gehitzea uztari. Aski duzu.

Ez izan beldur porrotari. Etsipena eta ez saiatzea dira porrotik handiena. Ez izan beldur errukiari. Kale gorriaren dagoen hurkoarentzat aurrena, eskua zabalduz. Baina baita kale gorri bota duenarentzat ere, eskuak eta bihotza zabal dakizkion. Ez utzi gorrotari barrua mingosten. Ez da hika-mikatarako garaia, elkarrekin etorkizuna asmatzeko tenorea baizik.

“Ez izan beldur bihar zer jango eta zer jantziko –esan zuen behin Nazaretoko Jesusok–. Begira zeruko txoriei, nola duten zer jan. Begira zelaiko liliei, zein diren eder”. Jakina, zeruko txoriak gutxiarekin bizi dira, eta zelaiko loreak gutxiarekin dira eder. Gu ere bizi gaitzake gutxiarekin zoriotsu, agian zoriotsuago.*



Zugandik gertu gaituzu Zu ere gertu behar zaitugu

TOKIKOMeko hedabideak gertu-gertukoak gaituzu. Zure inguruan gertatzen dena kontatzen dizugu. Zure hizkuntzan. Zure erara.

Lan ederra da eta, ondo egiten jarraitzeko, zu ere ondoan behar zaitugu. Makina bat erataria lagundu ahal diguzu; berriak emanez, albisteak idatziz, harpidedun edo bazkide eginez...

Gertu zaude? Idatzi gertu@tokikom.com helbidera eta hitz egingo dugu!

TOKIKOM

TOKIKO
KOMUNIKABIDEEN
BATERAGUNEA

Hirinet.net	Aikor	Barren	28 kanala		
Berton	Aikor.com	Elgoibarren.net	Karkara		
Bilbo Hiria Irratia	Anboto	Baleike	Karkara.com	Txintxarri.info	
Prest!	Anboto.org	Baleike.com	Antxeta irratia	Aiurri	
Uk	Goiena Papera	Erlo telebista	Hernaniko Kronika	Aiurri.com	Xorroxin irratia
Ukberri.net	Goiena.net	Uztarría	Kronika.net	Ttipi-ttapa	Guaixe
	Goiena telebista	Uztarría.com	Noaua!	Ttipi.net	Guaixe.net
	Pil-pilean	Goierri telebista	Noaua.com	Xaloea telebista	Beleixe irratia
	Plaentxia.com	Galtzaundi	Txintxarri	Mailope	Euskal Herria irratia
		Galtzaundi.com			

Ikasitakoa (I)

Ez da erraza urtebetean zer ikasi dugun esatea. Ez da erraza ikasi dugun hori urte horretan soilik ikasi ote dugun esatea ere. Hala ere, aurten gauza mordoa ikasi dudana sentsazioa daukat. Eta hori esan nien ikasleei, ikasurte honetan gauza asko ikasi ditudala, niretzat oso urte garrantzitsua izan dela.

Beti egoten da, ordea, erantzun zailak dituzten galdera errazak egiten dituen baten bat. Eta galdera egin zidaten: zer ikasi duzu ba aurtengo ikasurtean gurekin? Kosta zitzaidan zehazki zer ikasi nuen esatea, eta

batik bat beraiekin zer ikasi nuen esatea. Hainbat gauza esan nizkien arren, azalpena hankamotz geratu zen, eta ikasurtea bukatu baino lehen azalpena emango niela agindu nion neure buruari. Eta honako hau da ikasi dudana:

Nondik natorren ikasi du. Nire ikasleek dituzten jarrera eta portaerak aztertzean gu nolakoak ginen gogoratzen saiatu naiz. Zer esaten genuen, zer egiten genuen... Eta zer egiten nuen, zer esaten nuen, zer galdera, zalantza, aurreiritzi, uste... nituen. Hamalau urte nituenean, genituenean, nolakoak ginen



■■■■■■■■■■ eñaut frantzesena ■■■■■■■■■■

ikusi dut. Eta nolako nintzen. Izan ere, gelan hamalau urterekin nintzenaren kalkoa den ikasle bat izan dut. Askok irakatsi dit. Nola aldatu naizen, zer bide egin dudana aldaketa horretan. Garai hartan nituen ziurtasunetatik gaur egunean ditudan zalantzetara egin dudana bidea. Garai hartan nituen zalantzetatik gaur egunean ditudan ziurtasunetara egindakoa. Zer laga dudana bide horretan, zer hartu dudana, zer irabazi, zer galdu. Zer egin dudana ondo, zer gaizki... Nola egin dudana bide hori.

Hurrengo hilabetean gehiago.*

Argo

Film honek 1979. urtean Iranen, Teheranen, hain zuzen, Amerikako Estatu Batuetako enbaxada Ayatola Jomeiniren jarraitzaileek okupatu zuteneko istorioa azaltzen du. Pertsiaiko Sha, 1978. urtera arte Iranen diktadorea izan zena, Estatu Batuetara erbesteratua izan zen eta Ayatola Jomeiniren jarraitzaileek bere itzulera eskatzen zieten estatubatuarrei, juzgatua izan ahal izateko.

Ciak eta Kanadako gobernuek plan bat prestatzen dute, Teheranen Kanadako enbaxadorearen etxean ezkutatu ziren sei estatubatuarren erreskatatzeko.

Planaren helburua zen iraniarrei sinestaraztea Hollywoodeko film bat egitera zihoazela, ezkutatuak sei pertsonak bertako langile kanadiarrak izanik.

■■■■■■■■■■ KRITIKA ■■■■■■■■■■

'Argo' filma



Zuzendaria. Ben Affleck.

Gidoia. Chris Terrio.

Iraupena. 120 minutu.

Urtea. 2012.

Aktorea printzipalak. Ben Affleck, Bryan Cranston, Alan Arkin eta Jonh Goodman.

Nire iritiz, plan honen inguruko komeriek umore apurra gehitzen dio filmeari, Ben Affleck zuzendariak –bere hirugarren filmean– oso ondo lortu du tentsio eta misterio sentsazioa filmean zehar. Entretengarria eta interesgarria



■■■■■■■■■■ haizea etxeberria ■■■■■■■■■■

da, baina esan beharra dago, honelako film gehienetan bezala, estatubatuarrek ez dutela objektiboki azaltzen gertatutakoaren errealitatea. Iraniarrak istorioaren aldaketaz kezatu dira, helburu politikoak dituelako eta Iraniaren kontrakoa delako.


Esan daiteke *Argo* sariak merezi dituen film bat dela, ez da mugatzen istorio erreal bat kontatzera, dramatik hasi eta thrillerera pasatzen da, ahaztu gabe plan lortuezinaren gorabeherak sortzen duten umoreaz.

Horrez gain, Ben Affleck aktore eta zuzendariaren jarduera nahiko konbentzigarria da bere papelean. Hainbat zalantza zeuden bere aktuazioaren jardueraren inguruan, baina bere betiko paper tipikoetatik at oso ondo lortu du oraingoa.*

AIZPURU AUTOAK
 Landeta auzoa - Telf: 943 81 23 59
 Faxe: 943 81 22 81 20730 Azpeitia
aizpuru@aizpuru.net

Amenabar
 DENDA
 gortinak, ohazalak,
 edredoi nordikoak ...
 Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA
 ERLOJU
 KONPONKETAK
 Arana, 5
 AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



Bakardadeko kaperak

XVI. mendekoa, arkitekturari, eskulturari eta pinturari dagokienez Errenazimentukoa da, bere osotasunean. Uztarriak argazkitan jaso du kaperak. 📌📷 Ainitze Agirrezabala



▲ 'GRISALLA'.

Margoari dagokionez, ikusgarriena eskuineko pareta da; Bibliako atalak daude irudikatuta. 'Grisalla' deritzan margoa dago, eta Sixtina kaperan dagoen Migel Angelen 'Azken Juizioa'-ren antzeko zerbait irudikatzen du. Zoritxarrez, 1898an, leku horretan aldare bat jartzeko lanetan, irudiaren erdi aldea galdu egin zen.



▲ ELOLAREN MAUSOLEOA.

Nicolas Saez de Elola azpeitiarra Peruko konkistan Francisco Pizarroren kapitain izana zen. Herrira itzuli zenean, dirutza izugarria zuenez, dirua eman zuen orubea erosi eta kapera egiteko.



▲ KAPERAREN KORUA.

Kaperaren erdigunea, lauki baten irudikoa, lau albotara zabaltzen da. Horietako batean, kaperaren korua dago, arku apal baten gainean. Erdian irekidura duen kupula kasetonatu du kaperak eta Erromako panteoiaren eredia jarraitzen du. Kupularen oinarrian lau petxina daude, eta hondar-harrian eginiko lau ebanjelisten irudiak agertzen dira.

► ALDAREA IA HUTSA.

Garai batean erretaula zegoen, baina galdu egin zen eta haren lekuan Jesus gurutziltzatua, Andre Maria eta San Juan daude. Kupularen sabaia eta ingurukoak kardainduak dira.

► SAKRISTIA.

Sakristia ere badu, eta horrek ere berezi egiten du. Izan ere, elizan dauden beste kaperek ez dute ez tamaina hori, ezta sakristia edo organu propioa ere. Sakristia barruko lau paretak guztiz margotuta daude. Argazkiko irudian, Adan eta Eva lurra lantzen ikus daitezke, sagarra jan izanagatik zigortuta. Jainkoak esan zien izerdiarekin atera beharko zutela bizimodua, minez erditu beharko zutela bizimodua, eta abar.





▲ AZTARNA ARKEOLOGIKOAK

Zaharberritzeko lanak zirela eta, indusketa arkeologikoa egiterakoan, kanpai bat egiteko moldearen aztarnak aurkitu ziren, baita garai ezberdinetan lurperatutako hezurdurak ere. Kaperaren erdi aldean ikus daitezke.



▼ KORUPEAN, ERLIEBEAK

Irudi oso finak dira. Horietako batean, emakume baten irudia –Andre Maria edo Venus jainkosa– Bestean, berriz, Hercules edo Kristo.

XANTI RODRIGUEZ

Argazkilaria

“Olatuaren gainean jarri lanean segi beharra dago

Aitari esker eskarmentua hartu, irudiaren munduan sakondu eta umetan afizio zuena ofizio bilakatu zaio.

✍️ A. Agirrezabala 📷 X. Rodriguez

Gauzak egite hutsarekin ez da konformatzen. Lana gogotik egin eta pertsona eta profesional bezala hazten joatea helburu, ikaste prozesua etengabea da Xanti Rodriguezentzat. Horra hor, lortzen ari den emaitzen giltzarria.

Mundu honetako asmakuntzarik onena zer izan da?

Hainbeste daude...! Baina onena ohea.

Ohean egonda ez dago ailegatu zaren lekura ailegatzetik gero!

Ohea diot, deskantsatzeko apro-

posa delako. Lo asko egitekoa ez naiz, baina ohea asmatu zuenari monumentua egingo nioke.

Semea badoa koskortzen. Bere egunerokoa iruditan jasotzeko asmotan, argazki asko ateratzen al diozu?

Ateratzen dizkiot argazkiak, baina ez nik nahi hainbat. Lanetik etxera nekatuta ailegatzen naiz, eta ez zara hasten zera, argazkiak ateratzen. Afizionatu batek askotan profesional batek baino ilusio gehiago jartzen du horretan. Lehenbiziko urtebetean, hasi ospitaleketik eta, jarraipen oso zehatza



raitzeko

”



egin nion eta album txukun bat osatu nuen. Baina, azken urte eta erdian... Halere, asko ditu, e!

Mutil abila izango zinen zu umetan, edo seko jatun eskasa. Bietako bat. Kutzara baino lehenago ikasi zenuen arkatza hartzen. Ezta hala?

Jatun eskasa ez! Tira, jaten nuen, baita zera ere! Amoniakoa edan nuen behin, atera kontuak! Nik uste izango zela bazkaltzea bukatu eta aspertuta, marrazten hasiten nintzela. Baina, bai, amak beti esaten du, lapitza hartu nuela kutxara baino lehen. Trebetasun hori betitik izan dut, txikitatik gustatu izan zait marrazkiak egitea.

Noiz harrapatu zintuen irudi-munduak.

Irudia betidanik gustatu izan zait. Txikitatik gustatu izan zaizkit komikiak, super-heroiak eta horrelako gauza fantasiosoak. Gero, Bartzelonan, komikigintza, argazkilaritza eta aerografia ikasi nituen. Ikasle garai hartan, ilustrazioak, diskoen portadak... horrelako lanak nituen gogokoen. Arreta argazkian jartzea, aitarekin lanean hastean, orduan izan zen.

Argazki-irakasle onena etxean izan duzu.

Bai, ikasketak egin nituen, baina argazkilaritza, batik bat, aitaren eskutik ikasi dut. Hari esker hartu nuen eskarmentua. Bartzelonan, eskolako estudioan, irakasleak kristoren baliabideak –modelo ederra, argiztapen egokia...– jartzen zizkigun, eta guk horixe, argazkiak atera. Hasieran, argazkilaritza horrela ikusten duzunean, esaten duzu, ‘hau mundiala duk, hau duk pagotxa!’. Gero, dendan aitarekin lanean hastean, eguneroko trotean, ikusi nuen argazkilaritza beste zeozer zela. Ez daude modelo ederrak, ez dago argiztapen egokia... Egoera bakoitzera moldatu behar duzu eta eguneroko presio horrekin ikasi egiten duzu. Kazetaritza bezala da.

Nola joan zara dakizun guztia ikasten?

Ikaste prozesua etengabea da. Egia esan, hor izan nuen sasoi

||| **DATUAK** |||||

||| **Jaio.** 1978ko apirilak 11.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.** Argazkilaria.

“kutzara baino Lehen Lapitza hartu nuela, beti esaten du amak”

“aitari esker hartu nuen eskarmentua argazkilaritzan”

bat, 18 urterekin, koadrilarekin parrandak egitea bakarrik nuena buruan. Gero, 25 urterekin edo, arreta berezia deitu zidan infografiak eta 3D modeloak. Mundu horretan neure kasa barneratu nintzen; hor ez nuen eduki irakaslerik. Oso autodidakta izan naiz. Interneten orduak eta orduak sartu, neure ikerketak egin, eta urteen poderioz ikasi dut orain dakidana. Eta oraindik ere, gai horietan espezializatutako webguneetan ikasiz noa. Azken bost urteotan, infografiaren eta 3Dren munduak ate asko ireki dizkit publizitatean, musika-industrian, editorial arloan... Duela bi urte, liburu bat argitaratzeko proposatu zidan Anaya multimediak, eta ezustekoa izan zen niretzat. Normalean, AEBetako irakasleren batek idatzi eta itzulitako liburuak izan ohi dira. Baina lan hori egingo zuen inor ez zegoen nonbait hemen, eta orduan konturatu nintzen egiten dudana ezohikoa dela.

Estudioko lanaz gain, ikas-taroak ere ematen dituzu.

Urtean zehar, irakaskuntzan, irudia lantzeko tekniken inguruan masterrak eskaintzen ditut, eta, beraz, batetik bestera bidaiatzen dut. Irakasle bezala zapaldu gabeko txoko gutxi egongo da Es-

► painian. Portugalen ere izan naiz, baita atzerrian ere, Dublinoen. Horrez gain, estudioan afizionatuentzako argazkilaritzako ikastaroak ematen hasteko asmoa dut, urte bukaera aldera. Aurten, gainera, Euskal Herriko Argazki Topaketak herrian izango dira, azaroaren 9an, eta ikastaro bat eskainiko dut, Azpeitiko Argazki Elkarteak antolatuta, Sanagustinen.

Nolatan hasi zinen lehiaketan parte hartzen?

2008a izan zen, esaten dena inflexio puntua, 'hasi egin behar diat'. Gero, ikasten joaten zara lehiaketa bakoitzak nola funtzionatzan duen, trukoak hartzen eta azken urteetan emaitza onak lortu ditut. Lehiakorra naiz; behin irabaztearekin edo saritua izatearekin ez naiz konformatzen. Lehiaketa garrantzitsu bat dagoen guztietan aurkezten naiz. Aurten, Europako argazkilari onenaren 'Urrezko Kamera' saria irabazi dut, estudioko erretratu batekin [zuri-beltzeko emakumearen argazkia]. Sari mundiala da, kristoren oihartzuna lortzen duzu profesional bezala. Europatik kanpo, mundu mailan, Indian bigarren saria eskuratu dut, publizitate arloko kolezio batekin. Neure buruarekin gero eta exijenteagoa naiz, burugogorra, perfektionista. Errutinan erori eta geratzea arriskutsua da, are gehiago gaur egun. Olatuaren gainean segitzeo lanean jarraitu beharra dago.

Teknologia berriek zer pisu eta bilakaera izan dute zure lanean?

Kristoren garrantzia dute, ezinbesteko erremintak dira; teknologia da eskua emanda joatekoa. Ordenagailuz josita nago, argazki-kamerak ere gero eta hobeak dira, eta Internetari ere dezente denbora eskaintzen diot, egunero: sare sozialak direla, bezeroekin harremanak... Halere, munduko teknologia onena eduki dezakezu, edo munduko zapatilarik onenak izan, baina gola norberak sartu behar du; norbere arteak pisu handia du.



Perfil zeharo desberdineko argazkiak egiten dituzu. Zer arlotan gozaten duzu gehiena?

Gozatu, gehiena, sormen handiko lan ikusgarriekin egiten dut. Lan gogorra da, baina aldi berean ederra. Publizitate-agentziak bezero zorrotzak izan ohi dira eta lana milimetrora egin behar duzu. Noski, horiekin harremana oso hotza izaten da. Herriko jendearekin beste gertutasun bat dut. Azkenean, nahi eta nahi ez, ni hor hazi naiz eta erosoena horiekin sentitzen naiz. Arlo asko jorratu ditut, eta gaitasuna dut ume txiki bati argazki hunkigarri eta kuttuna ateratzeko, ezkontza-argazkiak ateratzeko edo-eta, publizitate kanpaina ikusgarri bat egiteko.

Nolakoa izaten da mundu surrealistik irudikatzeneko prozesua?

Filme bat bezala da, baina irudi estatikoekin. Iradoki nahi dudana erabakitzean, hornitzaileekin jartzen naiz harremanetan: modelo-arekin, orrazteaz eta makillajeaz arduratuko den profesionalarekin... Preproduzioari dagokione-

an, inguru abstraktua bada, edo errealista baina hemen inguruan bilatu ezin dena, Interneten argazkiekin dokumentatzen naiz, ondoren bozetoetan irudikatzen. Gero, modeloari esaten diot zer posturatan jarri eta aurpegiarekin zer adierazi behar duen, eta argazkiak atzealde berde edo gris baten aurrean ateratzen dizkiot. Postproduzioari dagokionean, aurrez sortutako 3Dko elementu bakoitza dagokion lekuan kokatu eta fondo bat osatzen dut, eta ondoren modeloari ateratako argazkia han txertatu. Bukatzeko,

“Arriskutsua da errutinan erori eta geratzea, are gehiago gaur egun”

“Elkarrekin haserretu al garen, hori ohiko galdera da”



1. 'Urrezko Kamera Saria' irabazi du erretratu honekin. 2. Ajedrezeko kolezioa, gehien kostatako lana. 3. Estudioan ateratako argazkia, ume txiki bati.

infografia photoshopen bateratzen dut. Prozesua luzea da, lan handia du, baina emaitza ikusgarria da. Edozer egin daiteke, hori da mundu honen ederrena.

Ateratzea gehien kosta zai-zun argazkia?

Asko dira, baina ajedrezeko kolezioa. Gauza asko hartu behar izan nituen kontutan: akziozko eszenak, aparteko errealismoa... Preproduzio eta postproduzio askoko lana izan zen.

Jendeak esango zizun bada, anaiaren konpetentzia zarela [harek aitarena zen argazki-denda darama]?

Elkarrekin haserretu al garen, hori ohiko galdera da. Ezta inondik ere! Aita jubilatzean erabaki genuen bakoitzak bere bidea egitea. Nik nahiago nuen estudioko lanaz gain beste esparru batera ere dedikatu. Nire anaiak, berriz, kristoren trebetasuna du dendako negoziarako! Aparte gaude, bai, baina ez haserretuta. Elkarri laguntza ere eskatzen diogu. Gainera, normalean, horrelako erabakiek erraztu egiten dute etorkizunean anaien arteko harre-



3

mana. Askotan hobe da bakoitzak bere aldetik jotzea.

Krisiaren atzaparra heldu al da zuenera?

Dudarik gabe, antzematen da. Ezkontzetatik, komunioetatik... bakarrik bizi den argazkilariak dezenteko jipoia jaso du. Duela pare bat urte, argazkilari batek, batez beste, 30 ezkontza bazituen, aurtan bost edukiko ditu; bost baldin badauzka. Jaunartzeekin, gauza bera; lehen 60 bazituen, orain 15. Gaur egungo egoeran, jendeak igoal nahiago du diru hori beste gauza batzuetan gastatzea. Jaunartzeko argazki batzuk luxua dira, bai, baina nik beti esaten dut, hartutako erabakiarekin kontsekuenteak izan behar gara. Semeari edo alabari atera diezaizkiozuke argazki oso 'politak'; ni horren kontra ez noa, errespetatzen dut, baina argazkilari profesional batengana joanez gero, lan profesional bat izango duzu.

Argazkilaritza modan al dago?

Bai, eta horrek gauza onak ez ezik txarrak ere baditu. Argazkiari ematen zaion balorea asko erori da; ez dezagun ahaztu profesionalok, arlo guztietan bezala, geure lanerako bizi gabela; hortik dugu ogibidea. Afizionatu-maila asko igo da, askok argazki bikainak egiten dituzte eta hori gorai-patzekoa da; baina beste askok uste du kamera 'on' baten jabe den momentutik emaitzak bakarrik datozela, eta hori ez da hala.

Argazkilari profesional one-nak hiriburuetan sortzen direla esan ohi da. Zu, berriz, herri txiki batekoa zara.

Hori mitoa da, baina, bai, oraindik ere badago txip hori. Liburua argitaratu nuenean, denek uste zuten Bartzelona, Madril edo atzerrikoa nintzela. Gaur egun, Internetarekin munduko pertsonarik iaioena mendi puntan egon daiteke.

Profesional bezala estudioa herrian irekitzeko apustua egin duzu.

Bai, noiz edo noiz esan izan didate, Donostian zabaltzeko estudioa, jende gehiagorengana iritsi eta irteera gehiago izango dudala. Baina, ez, nik garbi nuen herrian izan behar zuela. Kanpora aterako naiz, hots egiten didatenean. Etxetik oinez etortzen naiz hona, lanera; semea jasotzera neu joaten naiz eskolara... Erostatasun hori hartuta dut.

Zer moduz joan da Fernando Morilloarekin elkarlanean argitaratu zenuten 'Itzalen sua' proiektua?

Harrera oso ona izan du, baina tristeza bada ere, demostratu da jendeak ez duela baloratzen, oraindik, proiektua. Urtebetean kristoren lana egin dugu, profesional asko musu-truk aritu da lanean. Liburua, soinu-banda eta DVDa krisiaren kontrako prezioan, 20 €an, jarri dugu salgai, baina jendearen aldetik beste erantzun bat espero genuen. Pena handiena Gaumin argitalerak ematen dit, proiektu honean dirua inbertitu eta apustua egin duelako. Baina, tira, gu oso harro gaude egindakoarekin eta jarraitzaile sutsu dezente ditugu.

Argazkilarien arteko harremana zer-nolakoa da?

Harreman oso ona dut herriko nahiz kanpoko argazkilariekin. Gainera, beti prest nago lagundu edo dakidana erakusteko. Argazkilariak diren lagun min asko dut.

Etorkizunerako zure asmotako bat agentzia txiki bat osatzea zela zenion. Ireki berri duzun estudioa helburu horretara ailegatzeko zubia al da?

'In pass'ean

||| Irudiaren mundua ez ezik, musikarena ere pasioz bizi du Rodriguezek. Legen Beltza taldeko baxujolea da. Iaztik, 'in pass'-ean daude, taldekideak elkarrengandik hurrin bizi eta bakoitzaren lana medio, denbora hartu dute euren gauzetarako. "Hala ere, barruko zizarea noizik eta behin agurtzen dugu ensaiotxo batzuekin". Legen Beltzaren kanta zaharrekin eta Metallicaren hainbat bertsiorekin kontzertu bat emateko asmoa dute, urtearen bukaeran, Sanagustinen.*

Bezero solidoak izan, lan-bolumenta handia bada eta neuk bakarrik ezin badut guztia egin, agentzia txiki baten ideia badut buruan. Espazio hau proposa da horretarako. Hori gauzatzeko, ordea, pazientzia izan eta pixka bat zain egon beharko dut.

Anekdotarik?

Txikiteo elegante eguneko semearen koadrilako argazki batekin etorri zitzaidan behin emakume bat. Photoshoppa erabilia, semearen argazkia lortuko nuen eskatu zidan. Baina, noski, semea bigarren ilaran zegoen eta burua bakarrik agertzen zitzaion. Emakumeak uste zuen photoshopak mirariak egiten zituela eta edozer egitea zegoela.

Ikusten dut, lo ez duzula hartzen.

Ohea oso smakizun ona da, beharrezkoak diren momentuetarako, bakarrik, ordea.*

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943.15.16.40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

IRENE ALTUNA
ORADENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

lentzeria
mertzeria

jose artetxe, 16

nabar

Damurik gabe

Aitor Zubizarreta AEBetako NCAA saskibaloia ligara doa jokatzera, Eñaut Aranbarrik orain dela ia hogeitun urte egin zuen bide bertsutik. 📧📷 Mailo Oiarzabal

Amerikako Estatu Batuak (AEB) kontu askotan dira, onerako ala txarerrako, munduaren zilborra. Saskibaloian, esate baterako, hango jokalaria eta liga nagusia, NBA, dira dudarik gabe kirol horren erreferentzia nagusiak. NBA mundu osoko jokalaria onenen biltzarra bihurtu da azken hamarkadetan. Hala ere, izarren liga hartara iristen diren jokalaria gehienak AEBetako unibertsitateetan hazi eta hezitakoak dira oraindik, NCAA-ren (National Collegiate Athletic Association) txapelketetan, alegia.

Azpeitia eta Iraurgi Saskibaloia izatez eta itxuraz oso urruti daude AEBetatik eta hango saskibaloitik, baina bada NCAAren aritutako azpeitiar bat, eta laster beste bat iritsiko da hara. Eñaut Aranbarrik (Azpeitia, 1979) 1995-1996an hartu zuen Ameriketarako bidea, Aitor Zubizarreta (Azpeitia, 1995) jaio zen garai berean; orain, ekainaren 22an hain zuzen, Zubizarreta da Ameriketara joango dena, saskibaloian jokatzera eta ikastera. Uztarriak biak elkartu ditu, batak bititako eta beste bidez aritzen diren esperientziak aritzeko.

Jokalaria ibilbideko azken hiru denboraldiak Iraurgen egin ondoren, 2010ean erretiratu zen Aranbarri. Azken urte horietan ezagutu zuten elkar Zubizarreta gaztetxoak eta Aranbarri beterranoak. Aranbarrik eskolta eta hegaleko bezala jokatu zuen, eta Zubizarreta antolatzailea eta eskolta da. Jokalaria gisa batak bestearen ezaugarriak aipatzeko eska-

tuta, “ez naiz ondo akordutzen” dio gazteenak; eta “saskiratzalea zen”, bota du azkenean. “Jaurtitzale igoal hobeto, saskiratzale baino!”, erantzuten dio, umorez, zaharrenak. Aranbarrik xehetasun gehiago eman ditu, Zubizarretaren jokoaz: “Aitor beti izan da teknikoki oso jokalaria dotorea. Taldea aurrera eramateko orduan beti ikusi zaio baduela abildadea, antolatzaile bezala. Oraindik oso gaztea da eta fisikoa lantzeko dauka”.

Filmetan bezala

18 urterekin iritsiko da Aitor Zubizarreta Portlandera, Oregon estatuko hiri nagusira, hango unibertsitateko taldean jokatu eta enpresaritza ikasketak egiteko. Hara joateko aukera nondik iritsi zaion galdetuta, “Interneten jarri zuten nire informazioa, joateko prest nengoela adieraziz –azaldu du–. Partida batzuen bideoak ikusi zituzten, batzuek interesa azaldu zuten, eta harrezkero hilerro haiek hitz egiten egon gara”. Unibertsitate bat baino gehiagorekin hitz egin du, baina “inte-

||| “Kantxan aurreneko aldiz jaurtiketa bat egin nuenean, ikasle bat etorri zitzaidan korrika, baloia jasotzera”

AITOR ZUBIZARRETA

res handiena” Portlandek erakutsi eta, gainera, han lehengusu bat ere bizi duela kontuan hartuta, egin du azken hautaketa. Aste Santuko oporretan izan zen han eta, “Azpeitiarekin alderatuta oso desberdina” iruditu bazitzaion ere, “tokia gustatu” zitzaion.

Gazteak ‘desberdintasuna’ aipatu duenean elkarri begiratu eta irribarre egin dute Zubizarretak eta Aranbarrik. Azken honek, izan ere, ondo ulertu du azalpena. Telebistan eta zinean AEBetako institutu eta unibertsitateetan girotutako filmetan ikusten dena errealtatearen oso antzekoa dela baieztatu du Aranbarrik: “Institutuan sartu eta armairu edo takillak dauzkazu, eta partida egunean *cheerleader*-ak goizean joan eta takilla apaintzen dizute, festak etxeetan egiten dira... Telebistan-eta ikusten den den-dena halaxe da”.

Internet eta pezetak

Zubizarreta baino bi urte gazteago zen Aranbarri Minnesotako Sinley High School-era ailegatu zenean. 15-16 urterekin, bere adineko Espainiako aurreselektzioan jokatu zuen eta, han, Iturbe familia ezagutu zuen. Antxon Iturberekin harreman ona egin zuen eta, bi gazteen bueltan, gurasoek ere elkar ezagutu zuten. Antxon Iturberekin anaia zaharra, Iker [gerora, besteak beste, Real Madrilen jokatu-takoa], AEBetan zegoen orduan. Iturbetarrak hango agente batekin harremanetan jarri zituzten azpeitiarrak, eta horrela joan zen



Ezker eskubi, Aitor Zubizarreta eta Eñaut Aranbarri.



Ezkerrean Aranbarri, AEBetako bere aroan. Eskubian, Zubizarreta Portlanden, Aste Santuan.

||| “Telebistan ikusten dena halaxe da: etxeetan egiten dira festak, takilla apaintzen dizute ‘cheerleader’-ek”

EÑAUT ARANBARRI

Eñaut Aranbarri hara. Hasierako asmoa institutuko azken bi urteak han egin eta etxera itzultzea bazuen ere, azken urtean bere taldea estatuko txapeldun izan zen eta, saskibaloia eskertu, unibertsitateko atea ere ireki zitzaizkion. “Concordia University-n, Minneapolis-en bertan, bigarren taldean jokatzeko aritu nintzen. Lau urte egin nituen han, enpresako marketing ikasketak bukatu, eta etxera”.

Amerika kilometroetan orain hamazortzi urte bezain urruti egon arren, bera joan zenean orain baino “urrutiago” zegoela uste du Aranbarrik. “Ni pezetetan joan nintzen hara”, dio, jauzia nabarmentzeko. “Orain, dena gertuago dago, Internetari esker. Garai batean ziurgabetasun handiagorekin joaten zinen. Guk astean behin hitz egiten genuen telefonoz gurasoekin”, gaineratu du. Distantzien laburdura birtuala baieztatuz, “orain Skype dago”, dio Zubizarretak.

Beste mundu bat

Aldatu ez dena, antza, kirolarien egunerokotasuna da, AEBetako unibertsitateetan. “Han, kirolarekin ate asko irekitzen zaizkizu”, kontatu du Aranbarrik. “Hemen pentsatu ezinakin” diren zaintza eta arreta eskaintzen zaizkie han kirolari unibertsitarietara. Zubizarretak izan du halakoen berri, Aste Santuko egonaldian: “Kantxan sartu eta aurreneko aldiz jaurtiketa bat egin nuenean, ikasle bat etorri zitzaidan korrika, baloia jasotzera. Nik ezetz, hartuko nuela nik, eta berak baietz. Pena ematen zidan, hura baloiaren atzetik korrika ibiltzeak! Arratsaldero hiru-edo egoten ziren han, baloiak jaso eta pasatzeko”. Mimatzeak ez du esan nahi, ordea, dena erreza denik. Kirola eta ikasketak ondo uztartuta daudela dio Aranbarrik, baina gogor eta luze entrenatu behar dela. Gakoa “dena ematea” da: “Esfortua da dena, hori eskatzen dute han”.

Iraugin ezagutu dituen jokalariek estatubatuarrek bezala, Zubizarretari Ameriketara joatea ez zaiola damutuko ziur dago Aranbarri.

Adi-adi entzun ditu gazteak besteren esanak. Datorren udaberrian, maiatzaren 2an, itzuliko da, Portlanden ematekoak dituen lau urteetatik lehena pasatuta, Azpeitira.



||| aiora olaizola |||



||| ihintza elustondo |||



||| amets cañizares |||

Tox tox!

A **amets.** Nora zoazte hainbeste libururekin?

Ihintza. Liburutegira!

Aiora. Liburutegira? Hori dun txispa!

Amets. Handitan San Juan su!

Ihintza. Ze txispa ta ze txispondo! Zuekin ez dinat denborarik galdu nahi!

Aiora. Hori dun txakur umorea!

Amets. Uau, uau!

Ihintza. Nahiago niken liburu hauek sutarako izango bahitunan.

Aiora. Egingo dinagu San Juan su txikiren bat.

Amets. Akelarrea egin zezakenagu, sorgina bazaukanagu jada.

Ihintza. Ez haiz niregatik ariko, ezta?

Aiora. Suak zaharra erre eta berria ekartzen omen din.

Amets. Artoa sutan jarri eta palomitak egingo dizkinagu!

Ihintza. Suaren gainetik saltoka ibiliko gaitun!

Aiora. Espiritu txarrak uxatzeko ere balio din. Uxa uxa!

Amets. Uxa krisia!

Ihintza. Uxa azterketak!

Aiora. Uxa txakur umorea!

Amets. Uxa zurrungak!

Ihintza. Uxa hortzetako zikinkeriak!

Aiora. Uxa murrizketak!

Amets. Uxa tabakoaren kea!

Ihintza. Uxa kaleratzeak!

Aiora. Uxa langabezia!

Amets. Uxa zabor pilaketa!

Ihintza. Uxa igandetako buruko minak!

Aiora. Uxa errutina!

Amets. Tox tox esperientzia berriak!

Ihintza. Tox tox aire garbia!

||| **AMETS.** “Akelarrea egin zezakenagu, sorgina bazaukanagu jada”

||| **AIORA.** “Suak zaharra erre eta berria ekartzen omen din”

||| **IHINTZA.** “Suaren gainetik saltoka ibiliko gaitun!”

Aiora. Tox tox marea gora!

Amets. Tox tox txorien txorrotxia!

Ihintza. Tox tox ilusioak!

Aiora. Tox tox hi!

Amets. Gauza berrientzat atea irekita zaudukanagu.

Ihintza. Baita leihoak ere.

Aiora. Giltza topatu beharra dinagu, ordea.

Amets. Altxorraren bila jolastea bezalakoxea dun.

Ihintza. Piraten bizitza hobereena da!

Aiora. Ei neskak, hobereena falta dun. Tox tox palomitak!*



Liburua salgai Uztarriaren egoitzan
Uztarriaren bazkideek: 3 €
Bazkide ez direnek: 6 €

errezildarren ateraldiak



ERNIARRAITZ
saxtronale elkartera

uztarria

ruvi AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Bi hamarkada, lanean

Ekitaldiz betetako asteburua antolatu du Orkatz Kultur Elkarteak, bere XX. urtemuga ospatzeko. Bertso-saioa, bazkaria, kantaldia, kalejira eta kontzertuak izango dira, besteak beste. 🍷 **Uztarria**

Kultur elkartearen hogeitau urteak ospatzeko ekitaldiz betetako asteburua antolatu du Orkatzek. Hilaren 14an, Orkatzen egingo den bertso saioarekin abiatuko dute ospakizuna. Maialen Lujanbio, Jokin Uranga, Amets Arzallus eta Haritz Etxeberria bertsolariak ariko dira, (22:30).

Zapatuan, sega apustua izango da (10:00), eta, ondoren, batzarra Sindikatu Zaharrean. Orain arte egindakoaz, egungo egoeraz eta etorkizuneko erronkez ariko dira. Bileraren ostean, hamaiketako izango da Orkatzen.

Bazkaria Sanagustinen egingo da 14:30ean hasita, eta bazkalondoren, Amamantzat guapuk taldearekin kantaldia izango da.

Diskoaren aurkezpena

Gauean, (22:00), Egurra ta Kitto

DATUAK

■ **Zer.** Orkatz Kultur Elkartearen XX. urteurrena.
 ■ **Eguna.** Ekainak 14, 15 eta 16 (ostirala, zapatua eta jaia). ■ **Ordua.** Egun osoa.
 ■ **Tokia.** Herriko hainbat leku. ■ **Antolatzailea.** Orkatz Kultur Taldea.

eta Belar Txarrak taldeen kontzertuak izango dira, Orkatzen. Egurra ta Kittok bere hirugarren lana aurkeztuko du, *Zuentzat*. Taldeki-deen esanetan, "hamar kantuk osatzen dute diskoa, eta haietako bat Orkatzen urtemugari buruzkoa da. Estiloari dagokionez, soinu indartsuagoekin" datoz.

Ekainaren 16an, igandean, kalejira izango da Porrotzekin, Orkatzetik abiatuta (12:00).*

ORKATZEN XX. URTEURRENA

3 egun. Kultur elkartearen urtemuga ospatzeko, ekitaldiz betetako asteburua antolatu du Orkatzek.

7 ekitaldi. Bertsoak, sega apustua, batzarra, bazkaria eta Egurra ta Kittoren lan berriaren aurkezpena izango dira, besteak beste.*



Egurra ta Kitto taldeak hirugarren diskoa aurkeztuko du, 'Zuentzat'. ■ **Gaizka Otamendi**

BESTERIK

1 Musika eskolen bilkura
 Asteburu musikalaren baitan, Urolako trenaren ibilbidea jarraituz, Zumarragatik Zumaira bitarteko musika eskola guztiak bilduko dira Azpeitian, hainbat emanaldi eskaintzeko.
 ■ **Eguna.** Ekainak 9 (igandea).
 ■ **Ordua.** 11:00etatik 14:00etara. ■ **Tokia.** Plaza.

2 Motorzaleak, gosearen aurka
 Goseari atek itxi eta ahora zer eraman ez dutenei laguntzeko asmoz, janari-bilketa solidarioa antolatu dute. Egunean zehar, argazki-lehiaketa, musika emanaldia... izango dira.
 ■ **Eguna.** Ekainak 16 (igandea).
 ■ **Ordua.** Egun osoa. ■ **Tokia.** Sanjuandegiko Rochas's Chopper taberna.
 ■ **Antolatzailea.** Gipuzkoako Motorzaleen Batasuna.

3 Erremonteko finala

Hernaniko Galarreta frontoitik kanpo egiten den txapelketa zaharrena, Azpeitiko, abian da, hamaulagarren urtez jarraian. Maiatzaren azken igandean abiatu zen txapelketa, eta aurtengoan, "torneoa hobetzeko asmoz", partidak ostiraletan jokatu ordez igandetan dira.
 ■ **Eguna.** Ekainak 16 (igandea).
 ■ **Ordua.** 18:00 ■ **Tokia.** Izarraitz pilotalekua.
 ■ **Antolatzailea.** Udala eta Oriamendi 2010 erremonte enpresa.*

■ Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

Azpeititik kanpora bizi bazara ere
jaso zure etxean herriko berri hilero-hilero



uztarria
uztarria@uztarria.com
943 15 03 58

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

K	A	L	I	A	K	O	●	A	R	E	●
E	N	A	●	I	S	T	N	U	A	R	E
●	A	Z	A	●	E	P	A	S	E	B	●
O	R	I	L	●	I	S	T	R	E	H	●
K	A	Z	I	U	L	●	N	A	L	●	
K	●	U	S	T	A	L	A	Z	B	E	●
A	R	L	●	A	U	K	L	E	●	X	●
A	L	E	A	R	A	U	K	●	●	●	●
M	●	E	B	E	R	I	E	R	●	●	●
●	●	●	A	●	●	M	●	●	●	●	●

HITZ GURUTZATUAK

I	D	L	A	R	O	R	E	R	●	●	●
R	●	I	D	L	A	N	L	A	●	●	●
A	N	A	N	A	B	●	K	I	●	●	●
L	E	L	K	A	R	●	G	A	I	●	●
E	P	●	P	●	A	●	U	R	K	A	●
R	U	●	H	●	O	●	T	A	N	T	●
A	R	●	A	●	R	●	Z	U	K	R	●
U	R	●	U	●	N	●	L	E	I	●	●
A	I	●	Z	●	S	●	T	E	●	●	●

||| ZEIN DA? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Ekainak 24 (astelehena) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Kultur-bonoa ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN MAIATZEKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZEIN DA?



EKAITZ GARMENDIA, LEGEN BELTZAKO KIDEA



IRABAZLEA



Eba Arregi Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 150. irabazlea. Aisia hotel-aren eskutik bi laguntzako talasoterapia-zirkuitua eta afari bana irabazi du sari gisa. Argazkian, Arregi.




- ✓ 8 kontzertu, nahi dituzunak, doan.
- ✓ 4 ikuskizun, dantzakoa edo antzerkikoa, erdi prezioan.
- ✓ Jaialdi eta topaketak erdi prezioan.
- ✓ Umeen ikuskizunak doan.
- ✓ Tren Museoa bisita eta bidaia doan (2 laguntzat).

52€tan

Eskuratu kulturegunean!!

|||ARGAZKIA|||||||



◀MENDIA.

Benantxio Irureta mendizalea maiatzaren 11n hil zen, Pirinioetan, Aneto mendian (3.404 m), Mahoma esaten dioten pasabidea gurutzatzera zihoala amilduta. Urte asko eta asko eman zituen Iruretak Pirinioetan, Andeetan, Alpeetan eta Himalayan, mendiz mendi bidaiatuz. Aizarnan jaio zen, 1953an, baina Azpeitian bizi zen aspalditik, eta herriko eta inguruko mendizale gazteen eta hain gazte ez direnentzat erreferentzia handia izan da, mendia ulertzeko zuen moduagatik eta bizitzeko zuen pasioagatik. Agur jendetsua eman zioten, mendizaleen artean ohitura den bezala pioletak gora altxata, arku eginez. Mendizale miretsia zen Benantxio Irureta.|||||

|||EFEMERIDEAK|||||||

1311

'Salvatierra de Iraurgi'. Fernando IV.a erregeak bigarren karta-puebla eman zion herriari. Egun horretatik 'Salvatierra de Iraurgi' deitu zen, eta Soreasuko San Sebastianen monastegia donatu zion.

1743

50 soldadu aukeratzeko zozketa. Getarira irten zitezten. Ofizialak ere izendatu zituzten. Guztien soldatak erabaki zituzten.

1869

Udal telegrafo estazioa martxan hasi zen. Arduradun, Joxe Blasco telegrafista izendatu zuten.

📍 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea: Uztarria Kultur

Koordinakundea.✳

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak;
PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...



|||sartu, eta hartu parte |||egunero **2.000** bisita pasa (6.000 orri)

Arrainaren gibela

Oro har, arraina erosterakoan ez dugu kontutan hartzen gibela ere baduela, eta horregatik, baztertu egiten da hondakin gisa. Alabaina, bitaminaz oso aberatsa da gizakion elikadurarako, batez ere A eta D bitaminei dagokionean. Aberatsenak, halibuta, atuna, sardina eta bakailoaren gibelak dira.

Animalia horien gibelak ez du bitaminarik fabrikatzen, pilatu bakarrik egiten ditu. Hala, tiburoi baztuen gibela ezin du jan gizakiak, A bitamina gehiegi duelako. A eta D bitaminak liposolubleak dira, alegia, koipea behar dute inguruan osasunarentzat onuragarriak izateko.

Bitxikeri bezala kontatuko dut duela 25 urte eza-gutarazi zen kasu bat. Arrantzale talde batek bakailoaren gibela erreta jatea pentsatu zuen. Asko gustatu zitzairen nonbait, eta bete-bete egin arte jan zuten. Bost ordu geroago koadro toxikoan aurkitu ziren, egun bateko elikaduran gomendatzen dena baino mila aldiz gehiago A bitamina hartu zutelako. Jakin dezagun arrain baten gibela jateko gutizia badugu ez dagoela toxikatzeko arriskurik, eta ohiko jandietan jate ditugun arrain txikien gibelak onak direla gure osasunerako. Denetik eta gure senak agintzen duen neurrian jaten bada, oso zaila da bitamina gehiegi edo gutxiegi hartzea.*



Julian bereziartua

BIXEN MADOTZ Xoxoteko aterpeko arduraduna



1. Nongo jendea dator?

Azpeitiarrak, batik bat. Eta Izarraitz –Azkoitia, Zarautz, Deba, Eibar– ingurukoa.

2. Mendia ondo zaintzen al dugu?

Oro har, bai; baina oraindik kontzientziaztea falta da. Latak, botilak... azaltzen dira.

3. Halako tokian lana

egiteko zer behar da?

Bakardadea eta mendian bizitzea gustatu. Nik tallatu egiten dut, irakurri asko.

4. Lehen zer harreman zenuen Xoxoterekin?

Aterpea hartzean, duela sei urte, ezagutu nuen. Flipatu nuen. Sekulako lekua da.

5. Xoxote politen noiz?

Elurtuta, eskiatzeko eta...

6. Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu dute Izarraitz.

Kanpin-dendakoen jarrera erregulatzeko ere balioko du.

7. Anekdotarik?

Azpeitiarrek 'zaldie' eskatzen zuten, eta nik ezin ulertu!*

Ainitze Agirrezabala

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK

Jose de Artetxe, 17
AZPEITIA Tel. 943-810664

Ibai Ondo, 28
AZKOITIA Tel. 943-850445

domusa

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK*

URBISTONDO MARGOAK

Saibe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

SEGUROS BILBAO | Grupo CATALANA OCCIDENTE

www.segurosbilbao.com

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK:

- ETXEBIZITZAK
- AUTOAK
- DENDAK
- PERTSONALAK eta abar.

AURREZTEKO PRODUKTU INTERESGARRIAK. BAITA AURREZKIENTZAKO ERE.

Joxe Migel Muguruza (Urola Erdirako agente eksklusiboa)

Telf: 652.776.909 jm.muguruza@segurosbilbao.com

KIMU BATEKO EKOLOGIKOEN TXOKOA

HURBILDU ETA EZAGUTU !!

100% NATURAL EKOLOGIKOEN TXOKOA 100% NATURAL

Kimu bat

Agurtzeko garaia

30 urtez aritu da Frontoi Txikian mutil koskorrei pilotan erakusten. Erretiratzeko ordua iritsi dela dio.

 Ainitze Agirrezabala



F

rontoi-Txikian zenbat ordu egindakoa den kontatzen hasita, kontua gal-duta du. Hotz galantak bai, pasatutakoa da, baina sekula katarro txarrik harrapatu gabea. Eguneroko entrenamendu-saioarekin kunplitu ondoren hartu du frontoiko bulegoan Uztarrria Jesus Ruiz de Argandoña *Keuttin*-ek. Hiru hamarkada luzez aritu da mutikoekin lanean, pilota-erakustaile. 67 urte betetzeko bidean, bizitza guztia lanean eman eta gero, duela urte eta erdi jubilatu zen, eta, orain, frontoiko arduetatik erretiratzeko garaia iritsi

zaiola adierazi du. "Batzuk diote erretiratu eta depresioan erortzen direla. Jubilaziora ailegatu-eta aprobetxatu beharra dago! Jubilazioak ba al dakizu zer duen ederra? Obligaziorik ez. Nahi dudanean nahi dudana egite hori ederra da gero!".

Aspaldi esan zuen Keuttinek lehenbiziko herriartekoa irabaztean utziko zuela frontoiko jarduna, baina geroztik hamar urte pasatu dira. "Orain, Josu Etxeberria eta biok aritzen gara gazteei-eta irakasten, eta Josuri esana diot, beste pare bat lagunekin erreleboa har-

tzeko. Baina gazteek ez dute halako konpromisorik hartu nahi. Normala ere bada, ordu asko sartu behar da hemen. Ni 30 urtean nabil, eta santioetan utziko dut frontoiko lana. Partidak-eta ikustera oraintxe bezala joango naiz, baina obligaziorik ez dut nahi".

'Kalera atera ezetz!'

Ilunpe soziedadea sortu zutenean, 1982an, gastronomiarako ez ezik, kultura eta aisiarako elkarte izateko asmoz, pilotari heltzea erabaki zuten. "Ordura arte, Azpeitiko pilotariek



1/2. Azpeitiarrek azkoitiarren kontra galdu zuten herriarteko finala, 1995ean, Eibarko Astelenan. Orduan egin zen famatu 'Hiru, hiru!' aldarria.
3. Azpeitiak Gipuzkoako lehenbiziko Herriarteko Txapelketa 2004an irabazi zuen.

Azkoitiko Beti Poz klubeko fitzarekin jokatu behar izaten zuten. 1982an, frontoi zaharra botata zegoen; hamar urtez-edo egon zen horrela, eta hasieran Betharrametean ibiltzen ginen. Frontoi zaharrak erreboterik ez zuen, atzean Takolo Txikineko taberna zegoen, eta begira zegoen jendeak pilotariari deigar egingen zion: '[Pilota] Kalera atera ezetz!'.

1986ko Santio Egunean inauguratu zuten pilotalekua. "Frontoia eraikitzeke lanetan ari zirela, arkitektoarekin makina bat eskandalo izan nuen! Estreinatua baino hiru egun lehenago, Patxi Azkargorta eta biok jabetu ginen koadroak gaizki margotuta zeudela. Koadro bakoitzak hiru metroko luzera izan ohi du, eta koadro haiek ez ziren hiru metro neurtzera ailegatzeko. Koadro guztiak ezabatu eta berriz pintatu genituen". Neurritz, betiko frontoiak baino motzagoa eta estuagoa da, eta "orain txiki geratu da. Pilota bajuak atera behar izaten ditugu, bestela errebotera joaten dira azkar".

Harrobiarekin lan oparoa

Pilotan ikasteko asmotan, mutil koskor mordoa pasatu da Frontoi Txikitik, urte guztietan. "Garai batean gure ikasle izandakoen semeak dabilta orain, eta zenbait gurasok hala esaten didate: 'Kontxo, oraindik hemen al habil? Frontoi alboan dagoen zezenaren eskultura kendu eta heurea jarri beharko diagu! Hi, gainera, txikia haiz eta harri asko ez duk beharko!'. 'Niri marmol ona jarri gero!', erantzuten diet". Garai batetik hona, futbolaren eta saskibaloiaren-eta eraginez, ikasle kopurua asko jaitsi dela dio. "Lehen 100 ikasle inguru genituen; orain, berriz, 30 bueltan. Erakusteko garaian, hobe horrela; kopuru polita da.

Mutil koskorrei bide bat erakutsi behar diezu; beren erara utziz gero, entrenatzera igoal etorri ere ez!". Keuttinek begiz jotako mutilak ere izaten ditu: "segituan igartzen duzu pilotarako nork duen postura polita, zeinek duen gogoa... Hemen ez dago sekreturik. Jardun egin behar da, pilotan sufritu egin behar da".

Ilunpek harrobiarekin lan handia egin du. "Dozena erdi pilotarik –Peñagarikanok, Otaegik, *Beixama*-k, Astigarragak, *Txokolate*-k...– profesioaletan debutatu dute; afizionatuen mailan ere pilotari on asko atera da eta txapel asko lortu izan dugu".

Diru kontuei dagokienez, Ilunpen ere ez dabilta soberan. "Udalak lehen laguntzen gintuen diruz, baina orain pipak erosteko lain ere ez digu ematen. Mikel Goñik Izarraitzen jokatu zuen jaialdi batean ateratakotik oraindik geratzen zaigu zozter, baina azken ostikadak ari da ematen diru-zakua".*

'Hiru, hiru...'

III Azpeitian pilotaria baino lehenago Azkoitian toreatzailea aterako zela, aspaldiko esana da. Esaera horren parte bat bete dela dio Jesus Ruiz de Argandoñak, baina frontoitik erretiratzeko garaira iritsi, eta oraindik azkoitiar toreatzailearen zain dagoela gogorarazi die xakeleki.

Bi herrien arteko lehia urteen poderioz eta belaualdi berriekin baretu egin bada ere, Keuttinek nekez ahaztuko du 1995eko 'Hiru, hiru! Hiru, hiru!' aldarri famatua. Azpeitiarrek aurreneko Herriarteko Txapelketa zuten, eta Eibarko Astelenan zen finala. Frontoia jendez leporaino, eta ikusle-ildada luzea atarian, sartu nahi eta ezin. Hiru partidak irabazi zituen Azkoitiko taldeak. "Ba al dakizu haien zer urgullu zen gu mendean hartzea?", adierazi du Keuttinek. "Azkoitiarentzat harrotasuna zen gu zapaltzea. Gero, hurrengo hamar urtetan, kristoren taldea izan genuen, haien kontra jokatu nahi genuen guk, baina azkoitiarrek parean tokatu ez! Duela bi urte, berriz, ekipo seko txarra atera genuen, eta arerio nor tokatuko eta azkoitiarrek. 2-1 galdu genuen".

Aurten, berriz, azpeitiarrek ez dute hartuko parte Herriarteko Txapelketan, talderik ezin izan dutelako osatu. "10urtetik 14ra, Gipuzkoako talderik onena dugu; 14tik 20ra, berriz, ez onak, ez txarrak... ez dugu pilotaririk. Datozen bi urtetan zaila izango da ateratzea".*

KIRURI

JATETXEA
 Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
 Tfnoa.: 943 81 56 08
 Faxa.: 943 15 03 62

Iuba
 aholkularitza
 zuzendaritza
 kontables
 Gestorri lanak
 Finken administrazioa
 Gestio inmoiliarria
 Tfno.: 943 157 523 Faxa.: 943 157 274
 Enparan kalea, 48 • 48900 Azkoitia (Gipuzkoa)

arte eta dizainu ikastegia

 Dibujoko eta eskulana (haurrak) 17:30/19:00
 Pintura 17:30/19:00
 Talla 19:30/21:00
 Jose Artetxe kalea, 3
 669 414 025 - 943812808
 matrikula urte guztian zabalik

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturririkiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Erla Tebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00	BESTERIK	
EAJ	81 55 70	Xoxoteko aterpea	58 10 07
Sortu	15 72 00	Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua	
EA	81 00 11		943 08 06 88

FARMAZIAK (EKAINA)

EGUNEZ

1-2-4-7-13-20-25-28	3-8-9-12-18-24-27-29-30	5-10-15-16-21-26	6-11-14-17-22-23	19
Beristain (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 811949	943 080258	943 815974	943 811274	943 811350

GAUEZ

1-2-18-19-21	3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-24-25-26-27-28-29-30	17-22-23	20
Azpiazu (Azkoitia).	Beristain (Azpeitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).
943 852989	943 811949	943 851235	943 851966

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Ekainaren 26an izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Aralar	647 42 59 95
Hamaikabat	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47

AEK

AEK	15 10 89
-----	----------

EHE

EHE	15 10 89
-----	----------

Udal Liburutegia

Udal Liburutegia	15 71 95
------------------	----------

Loiolako Liburutegia

Loiolako Liburutegia	81 65 08
----------------------	----------

Kontseilua

Kontseilua	943 59 12 00
------------	--------------

Bai Euskarari

Bai Euskarari	902 43 00 26
---------------	--------------

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOIA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPO TXOKO** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ EGITARAUEN TXOKOA.

Sanagustin kulturguneko sarrerako albo batean, kulturguneko hileko egitarauaren panela dago. argiztatuta. Panel horren azpian herriko edozein elkarte bere ekimenen kartelak jartzeko txokoa dago.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

JOSU BERASATEGI

Bettendorf, Iowa (AEB)

“Izugarrizko esperientzia izan da familia osoarentzat”

Lan kontuak medio, AEBetara joan zen familiarekin, hiru urterako. Abentura bukatuta udan itzuliko dira.  A. Agirrezabala

Nolatan joan zineten AEBetara?

Nire emazteak, Itsasnek, Bellota enpresan egiten du lana eta Bellotak AEBetan duen lantegia eta beste hainbat proiektu berri zuzentzea eskaini zioten. Denontzat esperientzia positiboa izango zela eta etorri egin ginen. Hiru urterako kontratua sinatu zuen, baina laugarren bat ere egin dugu. Familia osoa gustura gauden seinale!

Erraz egin al zarete Bettendorfera?

Hasieran pixka bat kostatu zitzaigun; dena berria zen guretzat. Oso kultura eta bizimodu desberdina dute, gainera umeek ez zekiten ingelesez eta horrek pixka bat zaildu egiten zuen dena: eskolak, kirola, lagunekin harremanak, eta abar.

Horko zer gustatu zaizue gehien?

Duen espazioa, izugarritzko lautadak dituzte arto sailez josita. Horrek izugarritzko lasaitasuna ematen dizu eta jendearengan eragina du lasaitasun horrek. Ez dira presaka bizi, errepidean ikusten da garbi patxada hori.

Eta gutxiena?

Eguraldia. Negua gustatzen zait, baina he-

mengoa gehiegizkoa da. Iaz, -31 gradura iritsi ginen. Normalena da -20 graduren bueltan ibiltzea. Abendutik apirilera elurtuta egon gara, negua luzea egiten da. Udan, berriz, sekulako beroa, 35 gradu, izaten dugu, %90eko hezetasunarekin. Udaberriak eta udazkenak bi-hiru aste irauten dute, gure gusturako gutxitxo.

Zer botatzen duzue faltan?

Aste bukaerako horko biziiza soziala, hemen dena oso ezberdina da. Hemen 16:00etarako jada jendea afaltzen hasten da. Guk, berriz, horko ordu-tegiari eusten diogu oraindik.

Nolakoak dira Bettendorftarrak?

Traturako oso jende atsegina da eta, gainera, bertakoak ez garela ikusten dutenean, interes gehiago jartzen dute gure nondik-norkoa jakiteko.

Etxera bueltatzeko asmorik bai?

Bai. Denbora jakin baterako etorri ginen eta garaia iritsi da. Hemengo abentura bukatuta, sanferminetarako Euskal herrian izango gara, sentimendu gazi-gozeekin. Izugarritzko esperientzia izan da guztiontzako eta bereziki umeentzat, sekula ahaztuko ez dutena.✳

1



1. Aspen herrian, Coloradon, iragan martxoan, Josu eta Itsasne senar-emazteak. 2. San Diegon, Kalifornian. 3. Familia osoa, Yosemite Parken, Kalifornian.

6.893 kilometrora dago Bettendorf.

2



3



Laguna

Izan zitekeen rashaad, edo, antzeko, rashad, edo ez oso diferente, rasheed, baina bestelako izen bat hartu zuen, faltsua, nik hemen eskribitzerik ez dudana, deskuiduan hau leitu eta polizia ertzain guardiazibil udaltzain peskizan hasten bada ehiza ez dezan. internet eskura ez eta premia nuen batean ezagutu nuen dena delako izena duen mutil gaztea. ez dakizu internet gorabeherak konplitu eta nola hasi ginen hizketan "geure gauzez". kontua da berrikeran hasi gina egun hartan, eta berrikeran segitu genuela hurrengoan, eta gaztelaniaz motz dena delako izena duen mutila, eta ingelesez eraso geniola, eta ingelesez jarduten dugula harrezkerok. bi euskaldun berri gara ingelesez. edo hor nonbait. eta egun batean hau, bestean hura, haren historia osatu dut, osatzerik dagoen neurrian. asiako halako mutur urrutitik etorritako mutila, goian zerua, behean lurra bizi zirela dio. bi anaia zaharrago londresen zituen, arreba bat parisen. berak ere zer edo zer nahi, ezer ez gorri hura baino gehiago opa bere buruari eta erbestera bidea hartzea erabaki zuen. danimarkara etorri zen europara, paper okerrak zuzendu zizkion agentziako morroiak han zituelako erreferentziak. negozio sozioak, inondik ere. eta pakistandik —atera da herrialdearen izena—, danimarkara joan zen hegan, pasaporte bisatu agirietan poliziak faltsukeriarik igarri gabe gure lagunari. bakarrik zen danimarkan, ordea, eta londresen eta parisen, berriz, senideak, eta haietara abiatu zen. isilik ezkutuan igaro zuen danimarkatik alemaniarako muga, gauzez. bi hilabete egin zituen zain hanburgon, etxetik irten gabe ezkutuan, harik eta "gizon beltz batek hartu eta basoan barrena belgikara pasatu ninduen arte. banuen beldurra!". han, egun batzuetan zain egon eta taxia hartuta igaro zen frantziara. "taxilariari zer nahi nuen esan, ordaindu, eta mugazainik ez zen lekutik pasatu nintzen frantziara. tren geltokian utzi ninduen. handik, parisera".



|||||||miel a. elustondo|||

|||joan den urtetik da gasteizen, paperak gutxi gorabeherakoak, eta izena ere berea ez duela dabilkiela

arreba zuen han. lanean hasi zen, paperik gabe, ditxosozko paperik beti, baina lanean jardun zuen parisen zenbait urtez, furgoneta bat hartu eta handik hona eta hemendik hara, eraikuntzako hornigaiak garraio. behin baino gehiagotan egin zuen jendarmeekin estropezu. horietan, soinean paperik ez zuela, etxean utziak zituela zen beti aitzakia. hala ere, pasaporte zenbakia ematen zuen, ez berea hala ere, paperak zuzen zituen beste lagun batena baizik, eta hirutan libratu zen frantses poliziaren atzapar beti demokratikoetatik.

Besteren izenarekin

ez zen giro beti horrela ibiltzen eta behin, espainiara bururatu zitzaion. hemen bazela lana, bazela gizarte laguntza ere. kataluniatik igaro zuen muga, pasaporte faltsua hiru mila euro pagatuta. joan den urtetik da gasteizen, paperak gutxi gorabeherakoak, eta izena ere berea ez duela dabilkiela. gure laguna da.*





Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

- Komunikazioa:

- Prensua bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...



innovadental

hartz-klinika
AZPEITIA



ORTODONTZIAN *adituak*



Merkatuan dauden teknika aurreratuenekin haurren eta helduen hartz posizioa zuzentzen dugu.

16 urte bitarteko umeentzat, kontsultatu gure deskontuak enpaste, endodontzia, radiografia eta garbiketetan.

innovadental

Bisita gaitzazu:

José de Artetxe kalea, 5
(ambulatorioaren ondoan)
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:

943 02 59 55

*Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*